


Metroa eta zentimetroa



Metroa (m) luzera-unitate nagusia da.



Metroa baino luzera txikiagoak neurtzeko, **zentimetroa (cm)** erabiltzen dugu.

$$1 \text{ metro} = 100 \text{ zentimetro} \longrightarrow 1 \text{ m} = 100 \text{ cm}$$

1 Lotu neurri-unitate egokienarekin.

horma

metroa

billetea

koaderno

zentimetroa

autoa

2 Osatu adibidean bezala.

Marinak 1 m eta 75 cm ditu altueran. → cm

Hesiaren ateak 2 m eta 25 cm ditu. → cm


Jantokiko hormak 4 m eta 50 cm ditu. → cm

Tirolinak 3 m eta 68 cm ditu altueran. → cm




Kilometroa

Kilometroa (km) distantzia handiagoak neurtzeko erabiltzen da.



1 kilometro = 1 km

1 Kalkulatu zenbat kilometro dauden ikastetxetik baserri-eskolara.



2 Ebatzi buruz eta erantzun.

1. bidea → 13 km

2. bidea → 17 km

3. bidea → 20 km

Gaur goizean, 1. eta 2. bideak egin ditugu bizikletan. Zenbat kilometro egin ditugu?

Bihar, 2. eta 3. bidean ibiliko gara. Zenbat kilometro egingo ditugu?